

1600 eta 1633 bitarteko Bilboko etxebizitzetako jabetzaren egitura

Dr. Mikel Zabala Montoya

***Estructura de la propiedad de la
vivienda en Bilbao entre 1600 y 1633***

***The ownership structure of housing
in Bilbao between 1600 and 1633***

1. SARRERA:

Aintzin Erregimengo Bilbotarrak erabat ezezagunak ditugu¹. Egia esan, garai hartako oinarritzko gertakizun batzu baino ez ditugu ezagutzen: gudak, izurriteak, suteak, uholdeak, edifizio publikoetako eraikuntza, hainbat ospakizun eta xelebrequeri, etab. Baina nortzu izan ziren aldaketa guzti haiek gauzatu zituztenak? Bilboko biztanleriak ikerketa sakonak ezagutu baditu ere, hauek nahiko zaharrak izateaz gain, ikuspegi demografikoaren aldetik baino ez dira bideratu. 1961an M. MAULEÓN ISLAK bere *La población de Bilbao en el siglo XVIII* izenburuko lanean Bilboko Demografia sakonki aztertu arren, Garai Ilustratua baino ez zuen ikertu, Historia Soziala erabat alboraturik gelditu zela. Beronen oso bide antzekoak jarraitu ziren ondorengo hamarkadan G. MAYORA LARTIGUEren *La población de Abando en los siglos XVII y XVIII* izenburuko tesina bezalako lanetan. Garai berriagotan, bestalde, Eusko Ikaskuntzak zenbait iturri demografikoren argitalpenari ekin badio ere, XV. mende amaieraino baino ez da luzatzen².

Aintzin Erregimengo Bilboko biztanleriaren zenbaki gordinak proposatzea arriskutsua da oso, jarraian aztergai izango ditugun iturrien ezaugarrien arabera. B. BENNASSAREN esanetan, XVI. mende amaierako Bilboko biztanlegoa 5.000 kidekoa zen³. 1704 urteko sutegi-errolan 1.263 bilbotar agertzen zaizkigu⁴. Jarraian ikusiko dugun bezala, 1630eko zenbaketako auzokideak 1.245 ziren.

Ez dakit 1571eko suteak, 1593ko eta ondorengo zenbait urtetako uholdeak, edota mende amaierako izurriteak zenbaterainoko eragina izan zuten ahalbide gutxiko taldeak Hiribildutik kanporatzeko. Zenbait orube hutsik luzaro mantentzea oso susmagarria da. Dena dela, XVII. mendeko hazkunde geldoa ez dago zalantzan jartzerik: hirigintzaren bilakaera erreparatu besterik ez dago⁵. Aipatutako ezustek nahiko eragin larria izan zutelakoan nago, menpeko talde haietarako jabetza murriztu zela. Garai bereko merkataritzaren krisialdiak, halaber, lagundu omen zuen kapitala kokapen seguruagoetara desbideratuz. Honek, noski, menpeko talde hauen presentzia Bilbon gutxitu zenik ez du esan nahi. Jabetzaren galerak bestelako konponbideak eragingo bide zituen. Etxebizitza bakoitzeko presioa areagotzea, edota errebaletako eta ingurunekeo Elizateetarako zabalpena -besteak beste- horietariko batzu izan daitezke⁶.

¹ R.Mª MIEZA (1996: 118-125).

² J. ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ ET ALII (1996).

³ B. BENNASSAR (1969).

⁴ M. MAULEÓN ISLA (1961: 63).

⁵ T. GUIARD (1906: 289-297).

⁶ Berauen inolako estatistikarik ez dago.

2. ITURRIAK:

Ezaguna da Aintzin Erregimengo estatistiketako eskasia, edota berauen fidagarritasun falta. Bilboko Udalari dagokionez, artxiboak pairatutako gorabeherak direla medio, eskasia hori areagotzen zaigu, nonbait⁷. Fidagarritasunari dagokionez, berriz, maila ezberdinak daude. Jakina, agiri guzti hauen helburu fiskalak eta bestelako gorabeherak fidagarritasuna baldintzatzen dute; baina ezinbestekoak ditugu, agiri hauek besterik ez egotearren. Izan ere, erabilgarriak izan daitezkeelakoan nago, beti ere ondorioak erlatibizatuz. Hona hemen landuko ditudan agiriak⁸:

1. 1630 urteko Bilboko auzokide guztien zerrenda. Bertan kalez kaleko auzokideen nortasuna eta ogibidea zehazten dira, bestelako daturik gabe. Beronen izaera ezezaguna dut⁹. Guztira 1.245 kide dugu¹⁰. Ogibideak 513 kasutan aipatzen dira. Ez zehaztutako azkenengo datua, neurri batez, murriz daiteke, besteak beste, guztien ezagunak diren merkataria handiak, errentadunak, edota bestelako aparteko kideak ditugulako.

2. Jaurerriak eskeinitako Dohaina eta soldaduetako ordainketetarako Bilbori zegokion 2.500 dukatatako diru kopurua pagatzeko 1631ko Abuztuaren egindako sutegi-banaketa. Bertan 1.137 kideren nortasuna eta bakoitzari dago-kion diru-kopurua zehazten dira.

3. 1633 urtean Ogasun Saileko zenbait lan ordaintzeko Bilboko Udalaren aginduz jabetzaren estatistika. Bertan Zazpi Kaleetako leiho guztien¹¹ jabeen nortasuna zehazten da. Ez dira -tamalez- Atxuri, Zabalbide, Askao, Areatza edota Bilbo Zaharra aipatzen. Gainera, ez dira Barrenkale Barrena inguruko datuak osorik ateratzen, lanak bertatik ez izaterren edo¹². Guztira 2.848 leiho-
ren 244 jabe agertzen dira.

⁷ Gaurregungo B.U.A.H.ren barnean gordetzen den Begoñako Udal Artxibo Historikoaren kasuan, esaterako, 1586 eta 1759 bitarteko sutegi-erroldeko 8/46 p.s. falta da. Bertan irauten duten iturriak ezezik, bestelakoak ere izan omen ziren: V.E.K.A.: B.E.: 1007 p.s., 1. znbk.: 1506 eta 1512 bitarteko urtez-urteko sutegi-banaketa, esaterako.

⁸ Datozen orri hauetan aipatuko diren iturri hauen jatorria zera da: B.U.A.H.: A.A.: 263/1.

⁹ Gogora bedi 1630eko Konkordiaren arabeko sutegi-erroldeko kopuruaren berriztapenaren puntu eztabaidagarria: E.J. LABAYRU (1901: 677).

¹⁰ Kasu honetan ez ditut zenbatu Bilboren jurisdikzio barneko auzaturikoak. Metodologia berbera jarraitu zuen M. MAULEÓN ISLAK (1961: 63-64).

¹¹ Ezaguna denez, hau maiz askotan erabilitako unitate fiskala dugu.

¹² Arbolancharen maiorazkokoa zen don Ignacio de Asurduy y Arbolancharen dorretxea, eta Bilbao maiorazkokoa den don Francisco de Salazarrena, ez dira agertzen. Barrenkale Barrenako datuak Barrenkalekoekin batera azaltzen dira: don Pedro de Noviaeren dorretxea, esaterako, azkenengo honetan kokatzen da, jatorriz Barrenkale Barrenan egon bazen ere. Cf. M^aA. LARREA ETA R.M^a MIEZA (1988: 557-594).

3. 1630 ETA 1633 BITARTEKO BIZTANLERIAREN EGITURA:

3.1. Bilboko biztanlegoa:

Hona hemen 1630 eta 1631ko auzokideetako kopuruak:

1. Taula: Bilboko auzokideen kopuruak (1630/1631)

Gunea	1630	1631
Somera	163 ¹³	151
Artekale	120	93
Dendarikalea	118	94
Belostikalea	109	93
Harategi Zaharra	135	126
Barrenkale	107	114
Barrenkale Barrena	80	78
Areatza	122 ¹⁴	57
Askao	179	194
Bilbo Zaharra	112	137
GUZTIRA	1.245	1.137

1630 eta 1631ko estatistikak parekatzeak arazoak sortarazten dizkit. Lehenik, kalez kaleko etxebizitzetako banaketa ez da berdina izaten bi iturrietan: 1630eko Zabalbide eta Atxuriko biztanleria Someran barneratzen da 1631an; 1630eko Mikel Deuna Kalekoa, berriz, Areatzan. Bigarrenik, bien arteko zenbaki gordinen tartea, zenbait arrazoiri lepora diezaiokegu¹⁵. Alde batetik, egileen trebezia faltari: San Pedro de Mahamud bezalako kide esanguratsua ahaztua izan zen 1631ko Belostikaleko lehendabiziko zenbaketan, ondoren ohar batetan gehitzeko. 1630eko zerrendak, bestalde, erabilgarritasun fiskal zuzenik ez zuenez gero, etxebizitza berean dagoen eta unitate fiskala osatzen duen multzoa desegin zezakeen: izan ere noizbait “en la misma casa” agertzen da. Mugikortasuna ere ba omen da kontutan hartzekoa¹⁶.

¹³ Atxuriko hamazortzi kide eta Zabalbideko hamahiruak ere barne.

¹⁴ Mikel Deungo berrogeita bat kide ere barne.

¹⁵ Pobrezia, berriz, ez da bien arteko aldearen arrazoia: izan ere, 1631an baino ez da zehazten: urte hartan berrehun eta hamazazpi txiro zenbatzen dira. Alargunak, bestalde, bi iturrietan zehazten badira ere, 1631ko estatistikaren hogeita hamairuko kopuruak ez dauka fidagarritasun gehiegirik 1630eko ehun eta zazpiko zenbakiarekin, dagoeneko ordaindu beharreko diru kopurua zehaztua izanik, erabateko zehaztasunez idazteak esanahi gehiegirik ez izatearren edo.

¹⁶ Idatziriko kidea ez dela jadanik leku berean bizi izaten, beste batetan baizik, noizbait agertzen den egoera dugu.

Mugikortasun hau faktore eragile askotako ondorioa dugu. Gaztelako legeriak berak, alde batetik, zordunen kanporaketak baimentzen zituen¹⁷. Iharduera ekonomiko nagusienak ziren industriak eta merkataritzak, bestalde, mugikortasun hau erraztuko zuten: morroi bezala hasitako nekazal jatorrizko umea ofizial bilakatuko zen zenbait urteren buruan, eta -agian- maisu izaten saiatuko zen. Leku ezberdinetatik ibilitako merkatarri handiak finka daitezke Bilbo bezalako gune garrantzitsu batetan. Erakarpen honen berri izateko Bilboko Udal Artxibo Historikoan izandako etorkinetako zerrendak ikusi besterik ez dago¹⁸. Jabetzaren egiturak berak ere, noski, eragingo du aipatutako mugikortasuna: ulergarria da maizterren portzentaia nahiko altua deneko toki batetan jabe txikiz osatutako beste batetan baino altuagoa izatea. Don Francisco de Salazarren zenbait etxebizitzetako alokairuetako kasuan, adibidez, 1632an izandako lau maizterretatik, bi baino ez dira mantenduko 1642an¹⁹. Martín Ochoa de Bedia prokuradore zalapartari ospetsua Artekalen topatuko dugu maizter 1618an, 1630ean Someran dagoen bitartean²⁰. Bere kidea izandako Juan de la Puente erahildako matxinoa, berriz, Dendarikaleko maizterra dugu 1606ean, 1632ean don Francisco de Salazarren dorretxean bizi izaten topatuko dugun bitartean²¹.

Espekulazioa ere ba omen zen; eta zenbait kasutan hau geldiarazteko baldintzapenak izkiriaturako dira alokairuetako kontratuetan: Juan de Larrabasterrek, esaterako, “con condición de que no ayan de bibir otras perssonas en las dhas. cassas sin su consentimiento” exijituko zien Bernal de Epalza eta bere emaztea zen Magdalena de Lecueri luzatutako agirian²². Domingo Ortiz de Zornoza abokatuak, bere aldetik, Martín de Laveaga iskribau zalapartariari alokatuko zion Somera Kaleko erdiko gela 1630an “sin que la pueda arrendar a persona alguna”²³. Eta kontu hau ez zen bakarrik etxebizitzetako arazoa: dende

¹⁷ Hau gogorarazi nahi dut Bizkaiko Lur Lauan halakorik ez izatearren. Izan ere, merkatal ihardueretan parte aktiboagoa hartu ahal izateko, Lur Laueko zenbait kidek muzin egin zieten beraien jatorrizko legeria zen Bizkaiko Foruari. Izan ere, ezkontza-agiri askotan seme edo alabari etxebizitza emandako gurasoek berauen bizitza osorako gordetzen dute berorren gelaren bat.

¹⁸ Cf. M. BASAS FERNÁNDEZ (1958) eta A. RODRIGUEZ HERRERO (1960). Jatorrizko agirietarako: B.U.A.H.: A.A.: 363. eta 371. kutxa bitartean, eta bestelako kutxetan (378. edota 421.ean).

¹⁹ B.A.H.P.: N.A.: Isk.: Gonzalo de Lopategui (Bilbo): 5011 p.s.: 1632.II.14, eta atal bereko Isk. Martín Humaran de la Quintana (Garape): 1534 p.s.: 1642.V.28.

²⁰ B.A.H.P.: N.A.: Isk.: Sancho de Zurbano: 4318. p.s.: 1618.III.3; eta B.U.A.H.: A.A.: 263/1/15. Bi etxebizitzak oso ezaugarri antzekoak ditugu, nonbait: gela nagusia, goiko gela, denda eta sotoa.

²¹ B.A.H.P.: N.A.: Isk.: Diego de Zamudio (Bilbo): 4024. p.s.: 1606.XI.15 eta atal bereko Isk.: Gonzalo de Lopategui (Bilbo): 5011 p.s.: 1632.II.14. Bi etxebizitzetako alokairuak nahiko antzekoak ditugu: 550 eta 500 erreale urtebete bakoitzeko, hain zuzen ere.

²² B.A.H.P.: N.A.: Isk.: Martín de Arauco (Bilbo): 2554 p.s.: 1632.IX.16. Agiria, azkenean, ez omen zen protokolizatu.

²³ B.A.H.P.: N.A.: Isk. Sebastián de Ripa (Bilbo): 5729 p.s.: 1630.IV.15.

eta loiek ere arazo berbera ezagutuko zuten: don Gaspar de Zornoza y Villala Lizentziatuak Catalina de Amurrio alargunari Barrenkaleko denda erdia alokatuko zion 1632an, beti ere “sin que la pueda arrendar a persona alguna”²⁴ baldintzaturik.

3.2. Lurzoruaren araberako Bilboko gizarte-mailaketa

2. Taula: Bilboko Zazpi Kaleetako jabetza eta auzotartasunaren arteko erlazioa (1630/1633)

Zazpi Kaleak	1633	1630 ²⁵		1631	
		A	B	A	B
Somera	57	163 ²⁶	65,03	151	62,25
Artekale	55	120	54,16	93	40,86
Dendarikale	52	118	55,93	94	44,68
Belostikale	29	109	73,39	93	68,81
Harategi Zaharra	39	135	71,11	126	69,04
Barrenkale	37	107	65,42	114	67,54
Barrenkale Barrena	10	80	87,50	78	87,17
GUZTIRA	244 ²⁷	832	70,67	749	67,42

Maizterren portzentaia altua da, orokorrean, aurreko taularen elementurik aipagarriena. Artekale eta Dendarikale dira, bestalde, horien artean maila orkatuenak mantentzen dituzten guneak. Aldea, dena den, ez da gehiegizkoa izaten 1630eko datuetan oinarritzekotan. Kontrako egoeran, berriz, Harategi Zaharra, Belostikale eta -alde gehiegirik gabe, nonbait- Barrenkale ditugu. Barrenkale Barrenako datuek, bestalde, fidagarritasun gehiegirik ez dutela esan beharrik ez dago.

Inkilinoen portzentaia hauek lurzoruaren jabetzaren izaerari buruzko galderetara garamatza: Nolakoak dira jabe horiek? Nongoak? Zein da beraien iturburua?

²⁴ B.A.H.P.: N.A.: Isk.: Sebastián de Ripa (Bilbo): 5729 p.s.: 1632.II.6. Ez zen harritzekoa: auzia laster azaleratuko zen, beste kide batek errenta hobetzen eskeiniko zuenean. B.A.H.P.: N.A.: Isk. Martín de Laveaga (Bilbo): 5536 p.s.: 1632.VII.12.

²⁵ A: Auzokide guztiak. B: Maizterrak (ehunenekotan).

²⁶ Ondorengo zutabearekin parekatzeko, Atxuri eta Zabalbideko datuak gehitu ditut (nahiz eta jatorriz aldueratik izan).

²⁷ Kopuru hau aurreko guztien batuketarin bat ez etortzea jabeek etxebizitzak kale ezberdinetan sakabanaturik izatearren dugu.

3. Taula: *Bilboko Zazpi Kaleetako etxebizitzetako jabetzaren absentismoa (1630/1633)*

Zazpi Kaleak	Jabe absenteak ²⁸		Leiho kopurua	
	z.g.	%	z.g.	%
Somera	12	21,05	85	13,51
Artekale	12	21,81	87	17,36
Dendarikale	10	19,23	110,5 ²⁹	20,42
Belostikale	11	37,93	91	28,61
Harategi Zaharra	13	33,33	114	29,76
Barrenkale	15	40,54	158	43,52
Barrenkale Barrena	0	0,00	0	0,00
GUZTIRA	65 ³⁰	26,63	645,5	22,66

Jabe gehienak Bilbon bertan bizi izaten dira. Izan ere, baliteke aurreko portzentaiak errealak baino zertxobait altuagoak izatea, kasuren batetan (emakumezkoetan, batik bat) alde aurreko estatistiketako nortasuna ezkontidearen izenean agertzearen (betiere hau ezezaguna baldin baneukan). Absentismoaren portzentaiak, bestalde, areagotzen zaizkigu Somera Kaletik aldentzen garen heinean³¹. Dena dela, gutxi dira orokorrean kanpoan dauden garrantzizko jabeak. Gogoratu nola don Francisco de Salazarren Barrenkale Barrenako bere dorretxea alokaturik egongo zen. Dendarikalean dorretxeko jabea zen don Felipe de Arbieto, halaber, ez zen une hartan Bilbon egongo. Beste horrenbeste esan dezakegu Barrenkaleko don Juan de Urrutiaren dorretxearekin. Aipatutako Arbietotarrak, bestalde, zenbait etxebizitzaren jabetza izanik Barrenkalen, nekez azalduko ziren Hiribilduan³². Aurreko guztiak Barrenkale inguruneko absentismoaren portzentaiak altuagoak azaltzera laguntzen du, nonbait.

Ez dakit zein neurritan dorretxe zaharren jatorrizko izaera galtzen hasia ote zen (Hiribilduko zenbait esparrutan, bederen). Gogoratu nahi dut, ildo bere-tik, zenbait goi mailako kideren kokapena: Aparicio de Uribe Idazkaria, eta

²⁸ Elizaren jabetza ez bezala, ez dira elizgizonen etxebizitzak zenbatu. Z.g.: Zenbaki gordi-nak.

²⁹ Hamarrenak agertzen dira zenbait etxebizitzaren jabetza kolektibo izateagatik.

³⁰ Aurreko taulan bezala, kopuru hau aurreko datuetako batuketarekin ez dator bat, noizbait jabe berberak kale ezberdinetan dauzkalako etxebizitzak.

³¹ Jakina, Barrenkale Barrenako datuetako baliogarritasuna, berriro, erraz jar dezakegu zalantzetan.

³² Beste hainbat ondasun Abandon edota Deustun zeukaten.

Hortuño de Ugarte Kontulari Nagusia, Bilbo Zaharran dauzkagu 1631an. Egia esan, bi kide hauek jabe handiak izanik, beraien jabetza ez dago Bilbon, Lur Lauan baizik (Abandon eta Arratialdean, hain zuzen). Era berean, don Diego Victoria de Lecea edota Aparicio de Hormaeche Armadetako Hornitzailea Areatzan bizi ziren. Are gehiago: Zazpi Kaleetako jabe nagusienetarikoa zen Andrés López de Barrenechea abokatua Bilbo Zaharran topatuko dugu bizi izaten 1630an. Lurzoruaren jabetza edota beronen banaketa espaziala, beraz, ez dirudi elementu diskriminatzaile erabakiorrik.

4. Taula: *Bilboko Zazpi Kaleetako etxebizitzetako jabetza (1633)*

	Jabe Kopurua		Leiho kopurua ³³		Batazbeste ³⁴
	(znbk)	%	(znbk)	%	
Errentadunak	39	15,9	559	19,6	14,3
Merkatariak	71	29	1.002	35,1	14,1
Ogibide liberalak	27	11	362,5	12,7	13,4
Eliza	10	4	78	2,7	7,8
Artisauak	23	9,4	219,5	7,7	9,5
Bestelakoak	74	30,3	627	22	8,4
GUZTIRA	244	100	2.848	100	11,6

Orokorrean, eta alargunen kasuetan, senarra zenaren ogibidea izan da kontutan hartu izan dena³⁵.

Sailkapen honetako taldeen ezaugarriak aniztasuna eta definizio falta dira. Errentadunen artean, eta Leguizamón bezalako leinu zaharren titularrekin batera, oso bestelako kideak ditugu. Besteak beste, Euskal Herritik kanpoko Pedro de Lezama bezalako kargudun handiren bat, nahiz eta berez beste zutaberen batetan ere sartu ahal izan³⁶. Arruntena ez bada ere, merkatarri guztiak ez dira merkatarri handiak: Juan de Angulo, esaterako, Urduñar jatorrizko merkatarri txikia dugu, noizbait bere gain Udal Ogasunak izango dituela. Elizaren jabetzaren barnean, Komentuak nola baita Kapitulua ere sartzan dira; eta erakunde bezalako jabetza ezezik (Fabrika, Ospitala, etab.) elizgizonena ere sartu egin dut. Artisauen taldean topatutako gehienak maisuak direlakoan nago,

³³ Kopuruetan hamarrenak agertzen dira noizbait jabetza kolektiboa izatearren.

³⁴ Leiho kopurua/Jabe kopurua.

³⁵ Emakumeen papera merkatal arloan ba da dagoeneko egiaztatuturiko kontua: J.A. AZPIA-ZU (1995: 53-59).

³⁶ Ogasun Kontseiluko Idazkaria izanik, ogibide liberaltzat baino errentaduntzat hartu nahi izan dut, Zallako Alkatetzat bereganatu egin zuelako Erret Dohainaren bitartez.

eta maiz askotan berauen goi mailakoak diren besteen aztertzaileak. Erraz suposa daiteke ofizialek ez zutela horrenbeste gaitasun ekonomikorik izango kale hauetan jabe izateko, eta errebaletan bizi, edota maizterrak izango zirela. Bestelakoak, halaber, gehienbat artisauek izan behar dira, beraien jabetza maila (kide bakoitzeko batzbesteko leiho kopurua) baxuagoa izatearren. Bestelakoetan mota guztietako kideak sartu dira, bai ezezagunak izatearren, nola baita beraien ogibidea sailkapenetik kanpo gelditzearren: Domingo Martínez de Isasiren morroia zen Martín de Aldayek, beste zenbait ihardueretan aritzeaz gain diru kopuru handietako ihardueraren batetan izan zuena³⁷, nahiz eta bestelako arrazoiengatik Kotsuletxean sartzerik ez izan.

Aurreko datuen arabera, urte hauetako Bilboko lurzorua jabetza Aintzin Erregimenaren amaieran baino banatuago zegoela esan baldin badezakegu ere³⁸, ez dago Ertaroan bezainbesteko sakabanaketarik³⁹, dagoeneko etxebizitzaren jabetza mozkinen iturburua izaten hasia omen zelako. Badirudi aurreko urteetan aberastutako zenbait kidek -seguraski XVI. mende amaierako ezusteetaz baliatuz- lurzorua jabetza eskuratuko zutela⁴⁰, nahiz eta oraingoz jarrera atzerakor hau nabarmen ez ikusi.

Bilboko talde nagusiak ziren errentadun eta merkatariek jabetza osoaren % 54,7a kontrolatzen dute; zehazgabeko betekizuna duen ogibide liberalen multzoarekin batera zenbatuz gero % 67,4 bilakatzen den bitartean. Aipagarria da baita elizaren jabetzaren ahulezia: begibistan da momentuz ez duela XVIII. mendeko abagadunea ezagutu zentsu edota bestelako tresnen bidez jabetza bereganatzeko⁴¹. Menpeko taldeen jabetzaren proportzioa, bestalde, ba da oraingoz altu xamar (artisaunen portzentaiari neurri handi batez bestelakoak gehitu behar zaizkio): Bilboko jabetzaren ustezko murrizketa ez da artisauek kanporatzera heldu.

Bilboko errentadun edota merkataria eta gainerakoen artekoa da, hain zuzen, jabe guztien arteko alderik nabarmenena, nik uste. Eta ezberdintasuna zera da: lehenbizikoek goitik beherako etxebizitza osoa daukaten bitartean, besteak ez omen direla etxebizitza osoaren jabe: pisuren baten jabetza ba da nahiko hobekuntza handia alde aurretik, agian, maisuarenean; aldameneko auzoetan; edota beste hainbat kiderekin batera bizi behar izandako artisauek batentzako.

³⁷ B.A.H.P.: N.A.: Isk.: San Juan de Urquieta (Bilbo): 3782 p.s.: zenbait kideren arteko burdinaz elkartrukatzeko kontratua (1627.V.11).

³⁸ 1796go sutegi-eroldaren araberrako zenbait jabe handiren Bilboko ondasunetarako, ik. P. FEIJÓO CABALLERO (1991: 423-439).

³⁹ Cf. J. ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ ET ALII (1996), Bilboko zenbait diru-banaketaen transkribaketa.

⁴⁰ Gogora bedi F. BRAUDEL-en burgeseriaren traizioaren hipotesi ospetsua...

⁴¹ P. FEIJÓO CABALLERO (1991: 416-422); edota M. GONZÁLEZ PORTILLA (1975: 169-181).

5. Taula: Bilboko Zazpi Kaleetako etxebizitzetako jaberik nagusienak (1633)

Izen/Abizenak	L.k. ⁴²	% ⁴³	Og. ⁴⁴
Echavarri, Mateo	46	1,6	M
Mahamud, San Pedro	40	1,4	M
Montiano, Agustín	40	1,4	M
Múxica, Juan Pérez	40	1,4	M
Bustínza, María (Doña)	38	1,3	E
Landaverde, Juan	38	1,3	M
Barrenechea, Andrés López	37	1,2	O
Novia, Pedro (Don)	34	1,1	E
Arbieto, Pedro (Don)	32	1,1	E
Lezama, María (Doña)	31	1,0	M
Olarte de Orozco, Catalina (Doña)	31	1,0	E
Ospitalea	30 ⁴⁵	1,0	B
Villela, Gaspar (Don)	30	1,0	O
Zárate, Domingo	30	1,0	M

Banan banako zerrenda honetan egiaztatzen zaigu alde zuzenetatik aipatutako merkatari eta errentadunen nagusitasuna. Baina batez ere, beraien arteko batuketaren prozesua, edo -nahiago bada- sailkapenaren artifizialtasuna. Kasu batzuetan ikus ditzagun.

Mateo de Echavarri Kontsuletzeko merkataria dugu, bere izen bereko aita bezala. Dena dela, bestelako ihardueretan ere sartu zen: Bizkaiko Jaurerriak eskainitako hiru galeoietako zerbitzuaren diru-jartzailea izanik, esaterako⁴⁶.

San Pedro de Mahamud -bere arbasoak bezala- merkataria badugu ere⁴⁷, ez zen inoiz bertako kargudun izan, agian -C. VILLABASO sinistekotan- jatorri moriskoa izatearren⁴⁸.

⁴² Leiho kopurua (zenbaki gordinetan).

⁴³ Leiho kopurua (ehunenekotan): 2.848 leiho kopurua = 100.

⁴⁴ Ogibideak. Laburtzapenak: E: Errentaduna; M: Merkataria; O: Ogibide Liberalak; El: Eliza; B: Bestelakoak.

⁴⁵ Kopuru hau baino altuagoa izanik, zenbait kasutan jabetza kolektiboa izanik, eta beste jabeen izen/abizenak zehaztuta, jabetza erdia baino ez zaio gehitu.

⁴⁶ Hemen, beste iharduera ekonomikotan bezala, bere anaia zen Damián de Echavarrik jarraituko zuen. J.P. PRIOTTIK (1996: 87) Damián honen genealogia ezberdina eskaintzen du.

⁴⁷ T. GUIARD (1913: 507).

⁴⁸ C. VILLABASO (1883: 77-86). Gonzalo Saez de Mahamudek Bilboko Udaleko Betiko Erregidore izan zen 1547 eta 1551 bitartean; Gonzalo de Mahamud izeneko kidea Kontsuletzeko Diputatua izan zen 1521, 1525 eta 1531an. Hortik aurrera, abizen hau desagertuko zen zerrenda hauetatik.

Agustín Montiano ba omen da XVI. mende amaieran Bilbon azaldutako merkataria. Izan ere, 1594an Artekalen maizterra dugu⁴⁹. Dena dela, handik gutxira goi mailako karguetan topa dezakegu (izan ere, 1624an aldibereko Erregidore eta Kontsula izan zen)⁵⁰. Beronen seme biek merkataritzari ekingo bazioten ere (Kontsuletzeko kideak ditugu biak), haietariko batek Montiano leinuko jauna bezala aurkeztuko zen, ezkontzaren bitartez Menako Harango Medianasgo maiorazkoa jasoko zuela⁵¹.

Juan Pérez de Múxica Muxika, Ibarri eta Gorozika ingurunean zenbait etxe, lurzoru, hazienda, zentsuak eta bestelako ondareak izateaz gain, Kontsuletzeko merkataria dugu. Iharduera hauetako beronen jarraikortasuna, berriz, etendurik geldituko omen zen bere seme nagusienarentzako ondare multzorik nagusia maiorazko bezala jaraunstea⁵².

Doña María de Bustinza -abizenak berak kide honen merkatal jatorriaren berri ematen digu- don Antonio de Arteaga Zamudioren emaztea dugu. Kalatravako ordenako kide hau Lau Hiribildutako Korregidorea dugu une honetan⁵³.

Juan de Landaverde ba da doña María de Villarrealekin esposaturiko izen bereko merkatariaren seme nagusia. Bere aita izan zen Bilboko Udalak 1630eko Konkordia sina zezan izandako gorabeheretan bultzatzaile nagusienetarikoa⁵⁴.

Andres López de Barrenechea, Erret Kontseiluetako abokatua, Juan de Barrenechea merkatariaren semea dugu. Beronen ondasunak nabariak izanda ere, Joseph Gonzálezen 1629ko Dohainaren aurka nabarmentzeaz gain, 1637an auziperatua izango zen Juan Chacónen Dohainaren ordainketarako eskatutako diru-kopurua gehiegizkotzat jotzearen⁵⁵.

Don Pedro de Novíari buruzko ikerketa zehatza M^aA. LARREAK eta R.M^a MIEZAK burutu zuten⁵⁶; bertan hemen proposaturiko ideia berbera egiazta daitekeela uste dut. Era berean, eredu aldakor eta konplexu hauek errepikatzen dira ondorengo kideetan. Ez naiz, beraz, gehiago luzatuko. Bakarrik

⁴⁹ B.A.H.P.: N.A.: Isk.: San Juan de Allende (Bilbo): 2517 p.s.: Pedro de Bilbao la Viejak Agustín de Montianori egindako alokairua (1594.VI.12).

⁵⁰ V.E.K.A.: B.E.: 287 p.s., 1. znbk.

⁵¹ B.A.H.P.: N.A.: Isk.: Sancho Ortiz de Artunduaga (Bilbo): 4058 p.s.

⁵² B.F.A.A.: N.A.: Gernikako Protokoloak: 275 kutxa: Don Juan de Múxica eta María de Luno y Muxicaren arteko ezkontza-agiria (1632.VII.23). Beste semea, don Martín de Múxica, militar sartuko zen.

⁵³ S.A.O.: A.G.: 1111 p.s., non kide honen zenbait eginkizun jarrai daitezkeen.

⁵⁴ T. GUIARD (1906: 178).

⁵⁵ V.E.K.A.: B.E.: 369 p.s., 8. znbk; eta atal bereko 1522 p.s., 5. znbk.

⁵⁶ M^aA. LARREA ETA R.M^a MIEZA (1988: 557-594).

Ospitalearen berezitasuna aipatu nahi dut. Hau ba da Bilboko Udalaren jabetza. Baina kantitate eta kalitatea ez dira bat etorri behar: Ospitalearen Somera Kaleko etxebizitzaren bat 340 dukatatan salduko zen 1607ko enkante batetan, hain egoera kaskarra zuen eta⁵⁷.

6. Taula: Bilboko Zazpi Kaleetako etxebizitzetako jabetza (1633)

Zazpi Kaleak	E	M	O	El	A	B	Guzt.
Somera	81	317	80	12	57	82	629
Artekale	109	111	74,5	14	61	131,5	501
Dendarikale	127,5	147	98	19	28	121,5	541
Belostikale	87,5	83,5	44	9	15	79	318
Harategi Zaharra	25	145,5	16	6	46,5	144	383
Barrenkale	105	141	30	18	12	57	363
Barrenkale Barrena	24	57	20	0	0	12	113
GUZTIRA	559	1.002	362,5	78	219,5	627	2.848

Kalez kaleko azterketaren bidez zera ikusten da: Somera, Barrenkale Barrena eta -hein txikiago batez- Harategi Zaharra eta Barrenkale, merkatarien eskuetan daudela. Belostikalen, berriz, errentadunen jabetza nabarmentzen da. Harategi Zaharran eta -hein txikiago batez- Artekalen, azkenik, artisauen jabetza indar handiagokoa da.

Kokapenaren azterketari dagokionez, hona hemen sakabanaketa geografikoaren analisia:

7. Taula: Bilboko Zazpi Kaleetako etxebizitzetako jabetzaren sakabanaketa espaziala (1633)

Gunea	E	M	O	El	A	B	Guzt.
Lehen kantoiraino ⁵⁸	217,5	312	144	9	78	234,5	995
Erdiko gunea	257,5	503	145,5	40	85,5	267,5	1.299
Azkenengo hilarak ⁵⁹	84	187	73	29	56	125	554
GUZTIRA	559	1.002	362,5	78	219,5	627	2.848

⁵⁷ B.A.H.P.: N.A.: Isk.: Pedro de Mendia (Bilbo): 7272 p.s.: 1607.VII.18.

⁵⁸ Merkatu Zaharretik hasita.

⁵⁹ Zamudioko Atarira doazen Somera eta Artekalekoak, eta ingurune bereko Dendarikalekoak.

Aurreko datuen analisisiaz, ez dago banaketa argirik: merkatariek edota artisauak ez omen dituzte sarrerak erabat kontrolatzen. Ezta leinu zaharretako jabeek ere (dorretxeetako kokapena dela medio). Baliteke banaketa hau baino esanguratsuagoa mailaketaren araberakoa izatea (lehen solairua gune preziatuena izanik); edota -agian- etxebizitza beraren kalitatearen araberakoa.

3.3. Mailaketa profesionala

1630eko estatistikaren datuek zenbait ogibide baino ez dute adierazten: goi mailako merkataria, abokatu edota errentadunak ez dira aipatzen⁶⁰. Eskerrak orokorrean talde hauek -gainerakoak ez bezala- informazio iturririk oparo eta ugarienekoak direla⁶¹.

8. Taula: Bilboko lan-arlorik nagusienak (1630)

Arloa	Kideak	%
Ehungintza	189	36,84
Garraioa	62	12,08
Metalgintza	42	8,18
Hornikuntza	34	6,62
Ogibide Liberalak	27	5,26
Artisautza	27	5,26
Eraikuntza	19	3,70
Osasuna	17	3,31
Ostalaritza	15	2,92
Bestelakoak	81	15,78
GUZTIRA	513	100

Ehungintzaren barnean zenbait arlo ezberdin barneratu ditut: zapatagintza, larrugintza, etab. Garraioari dagokionez, gehienbat portuaren zamaketarekin lotutako iharduerak dira. Ogibide liberaletan, eskolamaisuak, iskribauak, abokatuak, prokuradoreak eta antzekoak ditugu. Artisautzari dagokionez, margolariak, taiulariak, bitxigileak eta zilarginak. Osasuna arloan, barberu-osagileak, medikuak, emaginak, etab. Bestelakoetan, azkenik, mota guztietako kideak. Izan ere, estatistikak izugarritzko aniztasun handia erakusten du: ehundik gora

⁶⁰ Sekula agertzen ez diren errentadunak ez bezala, merkataria bostan aipatzen dira. Abokatuak, berriz, bitan.

⁶¹ 1578an 4.400 eta 5.000 biztanle bitartean izango zuen Gasteizen ogibide ezberdinetako zortzirehun eta hamazazpi kide dugu. Berauen artean ehun eta hamazortzi merkataritza eta garraio arloetan. M^oR. PORRES MARIJUAN (1987: 69-73).

ogibide ezberdin, hain zuzen. Honek, noski, Bilboren iharduereen garrantzia-
ren berri ematen digu. Zenbait kasutan, bestalde, ogibideak benetazko bitxi-
keriak dira: kale garbitzailea⁶², erostaria⁶³, aingira harrapari, etab.

Ehungintza eta antzeko ogibideen erabateko nagusitasuna da, zalantzarik
gabe, aurreko datuen emaitzarik ikusgarriena⁶⁴, jarraian ere egiazta daitekeen
bezala:

9. Taula: Bilboko ogibiderik arruntenak (1630)

Ogibidea	Kideak	%
Zapatagile	61	11,89
Jostun	47	9,16
Larruontzaile	17	3,31
Taiulari	17	3,31
Idazkari	16	3,11
Postari ⁶⁵	14	2,72
Barberu-osagile	13	2,53
Zerrailgin	12	2,33
Errekardari	11	2,14
Lokarrietako arduradun ⁶⁶	11	2,14
Artekari	10	1,94
Kapelagile	10	1,94
Ostalari	10	1,94
Ehule	9	1,75
Errementari	9	1,75
Kordalari	9	1,75
Labezain	9	1,75

Baliteke aipatutako nagusitasun hori XVII. mendean hondamena ezagutu
arren oraingoz irauten duen XVI. mendeko Gaztelako artilearen gorakadaren
ondorioa izatea⁶⁷.

⁶² Erdarazko *barrendero*.

⁶³ Gazteleraazko *defuntera*.

⁶⁴ Aldez aurretik susmatuak: cf. M. ZABALA MONTOYA (1999: 47-75).

⁶⁵ Erdarazko *correo*. Lan honen izaeraren ziurtasunik ez dut.

⁶⁶ Gazteleraazko *amarrador*.

⁶⁷ Hala gertatu omen zen Gasteizen. M^ªR. PORRES MARIJUAN (1987: 84).

Merkatarien daturik ez ageri arren, T. GUIARDeK ehun eta hogeita zazpi kideren kopurua eskaintzen du 1625 eta 1650 bitartean⁶⁸. Gogoratu, era berean, aldez aurretik esandako 1633ko Zazpi Kaleetako hirurogeitahamar jabe merkataria. Bilbo osoko merkatarari jabeen kopuru faltak, tamalez, ez du erabateko konklusiorik baimentzen. Merkatarari handiren baten batek maizter bizi ba zen ere, nolana hiko alokairurik ez zuen. Juan de la Punteren komentatutako kasua ez zen bakarra izan. 1607an, esaterako, Antonio Bilbao Tellaehetik bere Artekaleko dorretzeko zenbait gela alokatuko zion une hartan Kontsula zen Hernando Ortiz de Allenderi urtebete bakoitzeko 35 dukatatan⁶⁹. Doña María de Villarreal Ariceta alargunak, berriz, Simón de Legorbururi goitik beherrako Barrenkaleko bere etxebizitza osoa alokatu zion 1635ean urtebete bakoitzeko 64 dukatatan⁷⁰. 1657an, bestalde, Simón de Legorbururi, 50 dukatatan alokatuko zion don Fernando de Barrenecheak bere Barrenkale inguruko dorretxea⁷¹. Dorretxe zaharren jatorrizko izaeraren aldaketa, beraz, egiaztatzen da. Beraien betekizuna ez omen datza leinuan. Edo, nahiago bada, Hiribilduko talde zuzendaria betetzera heldutako zenbait etorlek oinetxe zaharrak ere bereganatzen dituzte, nolabait jatorrizko taldearen sinbologia ere eskuratuz. Etxebizitza hauen garrantzi gehiena, dena dela, beraien ezaugarri fisikoetan egongo zelakoan nago: kokapena, haunditasuna, erosotasuna, etab. Hori dela eta, beste hainbat etorkinek beraien etxeak toki berrietan eraikitzeari ekingo diote.

Ogibide ezberdinen gaitasun ekonomikoa aldagarria da. Errentadun eta merkatarien nagusitasuna alde batera utziz, abokatuak edota -maila baxuago batetan- iskribauak⁷² dira gaitasun nabarmenenekoak, 1.000 eta 8.000 marauri bitarteko ordainketaz. Hauekin ogibide bezala pareka daitekeen bakarri botikariena da⁷³. Aurrekoengandik urrun ba da ere, talde pobreenetatik ezberdintzen diren iharduerak zilargintza, barberutza eta bitxigintza dira, berauen ordainketa 1.000 marauritara heldu gabe. Kontrako egoeran, azkenik, honako talde hauek ditugu:

⁶⁸ T. GUIARD (1913: 507-508).

⁶⁹ B.A.H.P.: N.A.: Isk.: Gonzalo de Lopategui (Bilbo): 5002 p.s.: 1607.XI.19.

⁷⁰ B.A.H.P.: N.A.: Isk.: Martín Iñiguez de Zugasti (Bilbo): 5401 p.s.: 1635.VII.6.

⁷¹ B.A.H.P.: N.A.: Isk.: Francisco Marivi Allende (Bilbo): 5112 p.s.: 1657.II.21.

⁷² Talde honen barnean ezberdintasunak nabariak izanik, kasuren batetan ordainketa 680 marauritakoa da eta.

⁷³ Ez da harritzekoa, beraz, Erregimenduan sartzeko eskubidearen aldeko berauen une honetako eskakizuna. Dirudienez, Udalak botikak bisitak jasotzen zituztela argudiatzen zuen. Botikariek, berriz, ogibidearen estatusa, nola baita beraien gaitasun ekonomikoa, defendatzen zuten. V.E.K.A.: E.E.: 1305. p.s., 80. znbk.

10. Taula: *Bilboko ogibiderik pobreenak, ordainketaren diru-kopuruaren modaren arabera (1630/1631)*

Marauriak	Ogibideak		
58	• Haizkolgile	• Labezain	• Jostun ⁷⁴
113	• Artekari • Bastagin • Ehule • Errekardari • Eskolamaisu • Ezpatagile	• Jostun ⁷⁵ • Kordelgile • Lastamarraga egile ⁷⁶ • Larruontzaile	• Lokarrietako arduradun • Txalupari • Zapatagile • Zerrailgin
227	• Betearazle • Errementari • Postari	• Taiulari • Tindalari	• Upelgile • Txalmagile ⁷⁷

Taula hau bi estatistiketako nortasunen elkarketaren emaitza dugu. Lehenik eta behin, mailarik baxuenak osatzen duten jostun eta labezaina (nola baita multzoko ehulearena ere) emakumeei bakarrik dagokizkien ogibideak direla ohartarazi beharra dago. Bigarrenik, talde guzti hauen miseria bizia: ogibide zehatzeko hainbat kide pobretzat jotzen dira. Azkenik, ogibide hauetako zenbait kideren ustezko gaitasun ekonomiko altuagoa. Hamarren bat izanik, gutxi dira orokorki (erabatekoa ez izan arren, nahiko homogeneousotasun handia erakutsi du taulak). Haietariko batzu ezagunak ditut udal arieletako enkantetan parte hartzeagatik. Beronen oinarrian arrazoi ezberdinak egon daitezke: maisutzaro arrakastatsua emaitza; ezusteko jaraunspena; zorioneko ezkontza; etab.

3.4. Bilboko pobrezia

Pobrezia aipatu berri dudan kontua da. 1631ko estatistikan kontzeptu hau aipatzen bada ere, ez da estatistikaren garaikidea izaten, beronen ordainketa burutzen deneko ondorengoko hilabetetatik eta 1634 urte bitartekoa baizik⁷⁸. Hona hemen emaitzak:

⁷⁴ Gaztelerazko *costurera*.

⁷⁵ Erdaraz: *sastre*.

⁷⁶ Gaztelerazko *marraguero*.

⁷⁷ Erdarazko *xalmero*.

⁷⁸ Belostikalen, esaterako, 1632 eta 1634 urtetakoak dira.

11. Taula: Bilboko pobrezia (1631/1634)

Gunea	Pobreak	%
Somera	11	7,28
Artekale	5	5,37
Dendarikale	5	5,31
Belostikalea	25	26,88
Harategi Zaharra	21	16,66
Barrenkale	14	12,28
Barrenkale Barrena	6	7,69
Areatza	20	35,08
Askao	46	23,71
Bilbo Zaharra	64	46,71
GUZTIRA	217	19,08

Aurreko datuen arabera Zazpi Kale eta gainerako guneak (Belostikale eta Askaoren kasu eztabaidagarriekin, noski) bi eremu sozioekonomiko ezberdin osatzen dutela esan dezakegu. Lehendabizikoaren pobrezia maila oso baxua den bitartean, bigarrenen ba da nabarmena.

Somera Kaleko datuak, bestalde, zerbait puzturik egon daitezkeela (bertan Atxuri eta Zabalbidekoak sartzearen edo) erreparatzen baldin badugu, Somera, Artekale eta Dendarikale Bilboko gunerik oparoena eta homogeenoa da.

Bilbo Zaharreko egoera erabat kontrakoa da. Bertan miseria ia biztanleria erdiaren arazoa da. Izan ere, Dohainaren ordainketaren atzerapena eta zorrak direla medio, pagatzeko eskakizuna luzatzen denean, aitzakia “ser pobres los más” dugu. Areatzako egoera horren larria ez izan arren, pobrezia maila ere nabarmena da. Hemen, dena dela, nahiko ezoreka handia dago: oso maila dezenteko zenbait kiderekin batera (Bidebarrieta inguruan kokatuko zirenak, nonbait) miseria bizian bizi izaten zen taldea ere topa daiteke. Izan ere, lehendabizikoaren artean aspaldian etorritako hainbat merkatariren familiak dauzkagu: besteak beste, Belarrotarrak, Oruetarrak, Ardilestarrak, edota Victoria de Leceatarrak.

Puntu hau argitzeko, azter ditzagun 1631an kalez kaleko ordainketaren emaitzak:

12. Taula: Bilboko gizabanako ordainketa, batatzbestekoa (1631)

Gunea	Marauriak
Somera	1.509,44
Artekale	1.363,45
Dendarikale	1.402,95
Belostikalea	786,76
Harategi Zaharra	467,97
Barrenkale	454,41
Barrenkale Barrena	1.018,11
Areatza	1.787,71
Askao	398,09
Bilbo Zaharra	528,29
GUZTIRA	880,79

Zazpi Kaleetako lehendabiziko hirurak (eta Barrenkale Barrena, nonbait) besteen gainetik azaleratzen dira; nola baita Areatza (edota beronen zenbait eremu) errebalen artean. Honek, egia esan, aldez aurretik kalez kaleko jabetzaren banaketarekin zerikusi gehiegirik ez badauka ere, bai -berriz- pobrezia-riaren datuekin.

4. ONDORIOAK

Bilboko jabetzaren egiturak Bilboko gizarte mailako antolaketa orokorra isladatzen du: errentadun eta -batez ere- merkatarien nagusitasuna, eta bestelako taldeen menpekotasuna. Neurri batez, baita, Bilboko populatze prozesuaren islada dugu: etorkinak jatorrizko Zazpi Kaleetako inguruetik kanpo korapilatzen dira beraien mailaren arabera. Baina isladatzeaz gain, ezkutatu edota eraldatu ere egin du: jatorrizko funtzioak galduriko dorretxeak beste kide berrien bizimoduaren ikurra bilakatzen dira. Azken batez, lurzoruaren balorea merkataritzaren arabera mailakatzen dela dirudi: sarreretako Somera edota Barrenkale ezezik, Zamudioko Atariarekiko lotura daukaten Artekale edota Dendarikale; eta Areatzako zenbait eremu (ustez, Bidebarrieta ingurua) gune preziatuenak omen ziren.

Baina -batez ere- gaurrengungo ikusmoldetik egindako gizarteko sailkapenen artifizialtasunaren lekuko dugu, non ogibide liberalak edota artisauak merkataritzan aritzen dira, jatorrizko merkatariak errentadunekin lotzen diren bitartean. Dena dela, ez dirudi lurzoruaren jabetza, berez, elementu erabakiorra zenik: gogoratu, ingurunekeo beste hiribilduren batetan ez bezala⁷⁹, Bilbon

⁷⁹ Esate baterako, Durangon, non etxebizitza populaturik izan beharra zegoen kargudun izateko. Cf. V.E.K.A.: B.E.: 11 p.s., 3. znbk.

etxebizitzaren jabetzaren betekizunik ez zegoela udal karguetan aukeratua izateko. Baina azkenengo hau elementu diskriminatzaile nagusia ez izateak ez du esan nahi aurreko orrialdetako analisiaren bidez talde hauen arteko ezberdintasunak ikusi ez ditudanik. Izan ere, eta aurreko guztiaren ondorioz, une honetarako Bilboko gizartearen oinarria kriterio ekonomikoa delakoan

5. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

- AZPIAZU, J.A. (1995): *Mujeres vascas: sumisión y poder. La condición femenina en la Alta Edad Moderna*. Donostia: Haramburu.
- BASAS FERNÁNDEZ, M. (1958): *La sección de genealogías del Archivo Municipal de Bilbao*. Madril: Kapareen Elkartearen Argitalpenak.
- BENNASSAR, B. (1969): *Rechercher sur les grandes épidémies dans le Nord de l'Espagne*. Paris: SEVPEN.
- ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J.; ET ALII 81996): *Repartimientos y foguera vecindario de Bilbao (1464-1492)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- FEIJÓO CABALLERO, P. (1991): *Bizkaia y Bilbao en tiempos de la Revolución Francesa*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia.
- GONZÁLEZ PORTILLA, M. (1975): "Primera aproximación al estudio de las rentas, ingresos y alquileres en Bilbao en el siglo XVIII" In EIRAS ROEL, A. (Arg.): *Actas de las Primeras Jornadas de Metodología Aplicada de las Ciencias Históricas. Metodología de la Historia Moderna. Economía y Demografía*. Santiagoko Unibertsitatea.
- GUIARD, T. (1906): *Historia de la Noble Villa de Bilbao. Tomo II*. Bilbo: L.G.E.V. (1971ko berrargitalpena).
- GUIARD, T. (1906): *Historia del Consulado y Casa de la Contratación de la villa de Bilbao. Volúmen I*. Bilbo: L.G.E.V. (1972ko berrargitalpena).
- LABAYRU, E.J. (1901): *Historia General del Señorío de Bizcaya. Tomo V*. Bilbo: L.G.E.V. (1971ko berrargitalpena).
- LARREA, M^a A. eta MIEZA, R.M^a (1988): "Las cuentas de la Casa Novia de Salcedo (Notas para el estudio de unas funciones sociales)" In *estudios de Geografía e Historia*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- MAULEÓN ISLA, M. (1961): *La población de Bilbao en el Siglo XVIII*. Valladolid: Valladolidgo Unibertsitatea.
- MIEZA, R.M.^a (1996): "Bilbao en los siglos XVI y XVII: estado de la cuestión". In *Bidebarrieta*. Bilbo: Bilboko Udala.
- PORRES MARIJUAN, M^aR. (1987): *Gobierno y administración de la ciudad de Vitoria en la primera mitad del siglo XVIII (Aspectos institucionales, económicos y sociales)* Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.

- PRIORRI, J.P. (1996): *Los Echavarri: mercaderes bilbaínos del Siglo de Oro*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- RODRÍGUEZ HERRERO, A. (1960): *Estudio de 180 expedientes genealógicos que existen en el Archivo Municipal de Bilbao*. Madril: Hidalguía.
- VILLABASO, C. (1883): "Documento histórico" In *Euskal Erria* III Bilbo: L.G.E.V. (berrargitalpena).
- ZABALA MONTOYA, M. (1999): "Menpeko talde eta Udal ogasunetarako hurbilketa: giza mugikotasuna eta gatazka (Bilbo, 1580/1650)" In *Letras de Deusto* 29. ale, 85. znbk. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

LABURTZAPENAK

- B.A.H.P.: Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala
B.F.A.A.: Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboa
B.U.A.H.: Bilboko Udal Artxibo Historikoa
S.A.O.: Simancasko Artxibo Orokorra
V.E.K.A.: Valladolidgo Erret Kantzelaritzako Artxiboa
A.A.: Aintzineko Atala
A.G.: Aintzineko Gerra
B.E.: Bizkaiko Entzutegia
E.E.: Erret Eginkizunak
N.A.: Notal Atala
Isk.: Iskribau
p.s.: Paper-sorta
znbk.: Zenbakia